

Iruñan, 2008 Apirilaren 15ean

*Kerobia taldeak Apirilaren 29an gure lan berriaren aurkezpena egingo dugu. Lan hau urte eta erdian kaleratuko den trilogia baten lehen zatia da eta Materia organikoa eta gainerakoak edukiko du izenburutzat. Diskoa autoprodukzioa da eta zirgilu propioarekin eta SGAE-tik kanpo kaleratuko dugu. Internetek duen garrantzia ikusita, diskoa [www.kerobia.com](http://www.kerobia.com) web orrialde berritu batekin batera aterako da, non disko osoa eta material guztia libreki deskargatzea posible den. Aurrerapen moduan Asteroideen antzokian artista eraila abestiaren bideoklipa jarri dugu ikusgai.*

Kaixo guztioi,

Hitz hauekin, Kerobia taldeko partaideok murgilduta gauden proiektu honen berri eman nahi dizuegu. Proiektu berritzailea da forma eta edukian eta batez ere, ilusio handiz eta lan handiz burutzen ari den egitasmoa.

2007ko azken egunetan, Rose Escargot diskoko girako kontzertuak jotzeari utzi genionetik iragartzen ari dugu 2008ko Apirilean gure lan berria kaleratuko genuela. Lan honen lehen eta berezitasun nagusia **TRILOGIA** bat dela da. Hau da, orain kaleratuko den lana, hiru diskoko lehen zatia baino ez da. Disko hauetako bakoitzaren iraupena 20 minutukoa da, lan osoak 60 minutu inguru iraungo duelarik (disko arrunt bat baino luzexeagoa). Trilogia honetako ale bakoitza, denboran espazio batekin kaleratuko da; lehenengoa 2008ko apirilaren 29an, bigarrena 2009ko Otsaila partean eta hirugarrena 2009ko Urriaren inguruan. Beraz, urte eta erdiko epean kaleratuko da trilogia osoa.

Hirukote honek, ardatz nagusi bat izango du dena kontextualizatzen, eta hildo nagusi hori **kontenedoreak** dira. Horrexegatik trilogiaren lehen diska Materia organikoa eta gainerakoak deituko da, hurrengoak paper eta kartoiei eta plastikoei egongo direlarik zuzenduak. Bizitzan zehar gauzak eta momentu ezberdinak erabili, gorde edo ezeztatzen ditugu. Han jasotzen dira jendeak ahaztu edo kontsumitu dituen gauzak, ideiak... Norberaren unibertsoaren fitxategi bat bilakatzen da, apalategi soil bat almatzen batean, bizitzaren zatiak dituelarik stock moduan. Horrexegatik aukeratu dugu kontenedorearen ideia, begirada bat bota nahi diogulako horri guztiari. Zer aurkituko dugu, zer ikusiko dugu kontenedore ezberdinetan? Guzti hau isladatuko da lan ezberdinetan.

Edukiaz aparte, forman ere aldaketa asko daude. Hasteko lan hau Kerobiaren autoprodukzioa da. Bere zirgilu propioarekin kaleratutako lana. Gainera SGAEtik geure burua bajaran eman dugu. Proiektu berri honen filosofiarekin bat ez datorrelako eta beraiek betetzen duten funtzioarekin eta lanarekin bat ez datozelako, gure aurreko diskoen etekinei uko egin diogu eta hemendik aurrera **SGAEtik kanpo** lan egiteko asmoa daukagu.

Era berean, gure musika eta autoprodukzioa izanik, libreki erreproduzitzeko aukera eman nahi diogu entzule guztiei, beraz disko osoa, kalitate onean, audio, irudi eta datu guztiarekin **libreki jendeak web orrialdetik hartu** dezan utziko dugu. Gure lana edonork dohainik jeisteko aukera dagoen arren, bakoitzak gure lana baloratu eta gure proiektu honetan laguntzeko dirua aportatzeko aukera izango du, proiektu hau bere osotasunean burutzeko aukera emateko eta hori aurrera eramateko medio nahikoak ahalbideratzeko.

Honekin batera, ohi den bezela, gure **lana dendetan ere erosteko aukera** izango da GOR disketeak banaketa egingo duelarik, baina esan bezela internetek hartu duen indarra ikusita, disko berriarekin batera **gure web orrialde berria martxan** jarriko da. Bertan, abesti eta material guztia

jeisteko aukera emateaz gain, kontenedoreen kontzeptua isladatu eta informazio guztia eskeitzen saiatuko gara, jadanik martxan dagoen eta indartzeko asmoa dugun **BLOG**-aren funtzioarekin batera.

Guzti hau azalduta, gure trilogia honen lehen lana Apirilaren 29an aurkeztu dugu prentsaurreko batean. Ordurako dendetan egongo da eta gure web orrialde berria zabalik izango da deskarga eta informazio guztiarekin. Era berean lan berri hau zuzenean ere aurkeztuko dugu, Apirilaren 30ean hasi, eta Iraila amaierarate iraungo duen kontzertu epean. Aurrerapen moduan **Asteroiden antzokian artista eraila** abesti berriaren **bideoklipa** ikusgai jarri dugu.

Laiste arte, KEROBIA.